



Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Resolución 10/2021 ebazpena
Recurso 4/2021 errekurtsua

Kidea/Vocal

M^a Aranzazu Arana Learte

Kidea - Idazkaria / Vocal Secretaria

María Yeregui Hernández

ALMACENES ELÉCTRICOS VASCONGADOS SA (AELVASA) enpresak kontratazio arloko errekurtsu berezia jarri zuen martxoaren 18ko 487/2021 Foru Aginduaren aurka. Foru Agindu horren bidez ebatzi zen amaitutzat ematea BERDIN SL enpresarekin Gipuzkoako Foru Kontratazio Zentralaren bidez material elektrikoaren hornidura ahalbidetzeko egindako esparru akordioa (X20011 espediente). Horri dagokionez, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, gaur egindako bileran, goian adierazitako kideak bertan direla, honako erabaki hau hartu du, aho batez:

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por ALMACENES ELÉCTRICOS VASCONGADOS, S.A. (AELVASA) contra la Orden Foral 487/2021, de 18 de marzo, por la que se resuelve concluir con la empresa BERDIN, S.L. el acuerdo marco para el suministro de material eléctrico a través de la Central de Contratación Foral de Gipuzkoa (expediente X20011), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

AURREKARIAK

ANTECEDENTES DE HECHO

LEHENENGOA.- Auzitegi honetako erregistro elektronikoa 2021eko martxoaren 31n aurkeztutako idazkiaren bidez, AELVASAK kontratazio arloko errekurtsu berezia jarri zuen ebazpen honen idazpuruan aipatutako foru aginduaren aurka.

PRIMERO.- Mediante escrito presentado en el registro electrónico de este Tribunal el día 31 de marzo de 2021 AELVASA interpuso recurso especial en materia de contratación contra la orden foral citada en el encabezamiento de esta resolución.

BIGARRENA.- 2021eko apirilaren 8an, agertutakoaren ordezkari eta egiaztatutako ondoren, Auzitegiak Gobernantza Departamentuko Idazkaritza Teknikoari igorri zion errekurtsua, eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 56.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio espediente eta dagokion txostena eskatu zizkion (apirilaren 14an jaso ziren).

SEGUNDO.- En fecha 8 de abril de 2021, tras considerar acreditada la representación del compareciente, el Tribunal remitió el recurso a la Secretaría Técnica del Departamento de Gobernanza y le solicitó, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), el expediente de contratación y el correspondiente informe, que se recibieron el 14 de abril.



Era berean, gogorarazten zion, errekurtsoa adjudikazio egintzaren aurka jarri zenez, kontratazio espedientearen izapidetzea etenda geratzen zela, SPKLren 53. artikuluan xedatutakoaren arabera.

HIRUGARRENA.- SPKLren 56.3 artikulua betez, esparru akordioaren adjudikaziodun den BERDIN SLri helarazi zitzaion errekurtsoa, bost egun balioduneko epean alegazioak aurkeztu ahal izan zitzaion.

Auzitegiaren erregistroan 2021eko apirilaren 22an sartu zen idazkiaren bidez aurkeztu zituen alegazioak, eta, bertan, errekurtsoa ezesteko eskatu zuen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Errekurtsoaren onargarritasuna

LEHENENGOA.- Errekurtsoa material elektrikoaren hornidura ahalbidetzeko esparru akordio baten adjudikazioaren aurka jarri zen (balio zenbatetsia: 4.269.600 euro).

Beraz, errekurritutako egintzaren aurka kontratazio arloko errekurtso berezi bat aurkez zitekeen, hala xedatzen baitu SPKLren 44. artikulua, 1 b) eta 2 c) apartatuetan, eta hura ebazteko eskumena Auzitegi honek dauka, hala agintzen baitu 24/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, Kontratu Errekurtsoen Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzen duenak, 2.1 artikuluan.

BIGARRENA.- Errekurtsoa jartzeko legitimazioa du errekurtsogileak, SPKLren 48. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitazioan lehiatu denez, eta errekurtsoa SPKLren 50.1.d) artikuluan aurreikusitako hamabost egun balioduneko epean jarri da.

Le recordaba asimismo que, dado que el recurso se había interpuesto contra el acto de adjudicación, la tramitación del expediente de contratación quedaba en suspenso en virtud de lo dispuesto en el artículo 53 LCSP.

TERCERO.- En cumplimiento del artículo 56.3 LCSP, se dio traslado del recurso a BERDIN, S.L., adjudicataria del acuerdo marco, para que en el plazo de cinco días hábiles pudiera formular alegaciones.

Las presentó mediante escrito que tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 22 de abril de 2021, en el que termina solicitando la desestimación del recurso.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Admisibilidad del recurso

PRIMERO.- El recurso se interpone contra la adjudicación de un acuerdo marco que tiene por objeto el suministro de material eléctrico con un valor estimado de 4.269.600 euros.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1 b) y 2 c) del artículo 44 LCSP, y la competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

SEGUNDO.- La recurrente está legitimada para interponer el recurso de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP, dado que ha concurrido a la licitación, y el recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.d) LCSP.



Auziaren mamia

HIRUGARRENA.- 2020ko abenduaren 22ko erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak kontratazio espedientea onetsi zuen Gipuzkoako Foru Kontratazio Zentralaren bidez material elektrikoaren hornidura ahalbidetzeko egin zen esparru akordio bat amaitutzat emateko. Esparru akordio hori hiru sortetan banatuta zegoen: eraikinak kontserbatzeko materiala, industria kontserbatzeko materiala eta argiteria publikoa kontserbatzeko materiala.

Lau enpresak aurkeztu zituzten eskaintzak, eta horietako bi hiru sortetatik kanpo utzi ziren, hainbat arrazoiengatik. Gainerako bietako proposamenak, AELVASA eta BERDIN SL enpresenak, pleguetan aurreikusitako adjudikazio irizpideen arabera balioetsi ziren. Ondoren, Kontratazio Mahaiak erabaki zuen proposatzea amaitutzat emateko BERDIN SL enpresarekiko esparru akordioa, Gobernantzako foru diputatuaren martxoaren 18ko 487/2021 Foru Aginduaren bidez onetsia.

Errekurtsogileak eskatzen du aurkaratutako foru aginduaren deuseztasuna erabakitzeke, eta jarduketak une egokira atzera eramateko, kontratazio organoak berriki ditzan auzitegi honek agindutakoaren arabera, eta esparru erabakia bere alde adjudikatzea erabaki dezan.

Honako hiru arrazoi hauek alegatu ditu errekurtsua jartzeko:

- BERDIN SLk 3. loteko produktuetako baten ezaugarri teknikoak ez betetzea.
- BERDIN SLk memoria teknikoa behar bezala orrikatuta aurkezteko eskakizun formala ez betetzea.
- Ageriko akatsa eta arbitrariotasuna txosten teknikoan ingurumen irizpideei dagozkien puntuazioak ematean.

Fondo del asunto

TERCERO.- Por acuerdo de 22 de diciembre de 2020 el Consejo de Gobierno Foral aprobó el expediente de contratación para la conclusión de un acuerdo marco para el suministro de material eléctrico a través de la Central de Contratación Foral de Gipuzkoa, dividido en tres lotes: material para conservación de edificios, material para conservación industrial y material para conservación de alumbrado público.

Presentaron ofertas cuatro empresas, dos de las cuales fueron excluidas de los tres lotes por diversas causas. Las proposiciones de las dos restantes, AELVASA y BERDIN, S.L., fueron valoradas de acuerdo con los criterios de adjudicación previstos en los pliegos, tras lo cual la Mesa de Contratación acordó proponer la conclusión del acuerdo marco con la empresa BERDIN, S.L. que se aprobó por Orden Foral 487/2021, de 18 de marzo, de la diputada foral de Gobernanza.

La recurrente solicita que se acuerde la nulidad de la orden foral impugnada, y se retrotraigan las actuaciones al momento oportuno al objeto de que el órgano de contratación las revise conforme a lo que ordene este Tribunal y acuerde la adjudicación del acuerdo marco a su favor.

Alega como motivos de su recurso los tres siguientes:

- Incumplimiento por BERDIN, S.L. de las características técnicas de uno de los productos del lote 3.
- Incumplimiento por BERDIN, S.L. de la exigencia formal de presentar la memoria técnica debidamente paginada.
- Error manifiesto y arbitrariedad del informe técnico al otorgar las puntuaciones correspondientes a los criterios medioambientales.



LAUGARRENA.- Errekurtsogileak adierazi du adjudikaziodunak eskainitako produktuetak batek, zehazki 3. loteko 34. artikulua, ez dituela betetzen preskripzio teknikoan agirian aurreikusitako ezaugarriak eta, beraz, BERDIN SLk lotetik kanpo geratu behar zuela.

Preskripzio Teknikoan Agiriaren II. eranskinean, produktuek bete behar dituzten ezaugarriak deskribatzen dira, eta, zehazki, 3. loteko 34. produktuari dagokionez, honako hau adierazten da: *“10X38 ETA 6 A MOTAKO FUSIBLEEAK BABESTEKO KAXA, IP-66 HERMETIKOTASUNAREKIN”*.

Adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintza aztertuz gero, fusibleak babesteko kaxaren hermetikotasun maila IP-54koa da, eta ez IP-66koa.

Administrazio klausula partikularren agiriko ezaugarrien koadroko 18.1 atalean adierazten denez, 2. gutun azalean, balio judizioen bidez adjudikatzeko irizpideak baloratzeko, eskainitako materialen ezaugarriak eta hornidurari lotutako ingurumen alderdiak sartuko dira, eta, jarraian, honako hau zehazten da: *“Baldintza teknikoak betetzen ez dituzten (...) lizitatzailerak lizitazio prozeduratik at utziko dira”*. Era berean, administrazio klausula partikularren agiriko 28.2 klausulan ezartzen denez, *“eskatzten diren preskripzio teknikoak betetzen ez dituzten proposamenak kanpoan utziko ditu kontratazio mahaia”*.

Materialen ezaugarriei buruz preskripzio teknikoan agiriko 2. atalean adierazten denaren arabera, *“baldintza agiri honen hurrengo ataletan eta II. Eranskinean adierazten dira eskaini beharreko produktuen ezaugarriak. Kontrakoa zehazten den kasu zehatzetan izan ezik, preskribatzen diren ezaugarriak gutxienez baldintzak dira, eta, beraz, horiek ez betetzeak eskaintzatik bazterzea ekarriko du”*.

Zerbitzu Orokorretako buruak errekurtsoa dela eta emandako txostenean adierazten denez, onartu

CUARTO.- La recurrente señala que uno de los productos ofertados por la adjudicataria, en concreto el artículo número 34 del lote nº 3, no cumple con las características previstas en el Pliego de Prescripciones Técnicas (PPT), y que, por lo tanto, BERDIN, S.L. debió haber quedado excluida de dicho lote.

En el Anexo II del PPT se describen las características que los productos han de cumplir y, en concreto, respecto del producto número 34 del lote nº 3 se indica *“CAJA DE PROTECCIÓN PARA FUSIBLES DE 10X38 Y 6 A. GRADO DE HERMETICIDAD IP-66”*.

Si se analiza la oferta presentada por la adjudicataria resulta que el grado de hermeticidad de la caja de protección para fusibles es de IP-54 en lugar de IP-66.

En el apartado 18.1 del cuadro de características del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares (PCAP) se indica que en el sobre 2 se incluirán, para la valoración de los criterios de adjudicación mediante juicio de valor, las características de los materiales ofertados y los aspectos medioambientales asociados al suministro, y a continuación se especifica que *“se excluirá del procedimiento de licitación a aquellas licitadoras que no cumplan las condiciones técnicas exigidas...”*. De la misma forma, en la cláusula 28.2 del PCAP se establece que *“las propuestas que no cumplan las prescripciones técnicas exigidas serán excluidas por la mesa de contratación”*.

En cuanto a las características de los materiales se señala en el apartado 2 del PPT que *“en los apartados siguientes y en el Anexo II de este pliego se indican las características de los productos a ofertar. Salvo en los casos concretos en los que se especifique lo contrario, las características que se prescriben son requisitos mínimos por lo que su incumplimiento será causa de exclusión de la oferta.”*

En el informe emitido con ocasión del recurso por el jefe de Servicios Generales se indica que debe



egin behar da errekurtsogilearen alegazioa egiazkoa dela eta eskaintzak aztertzerakoan ez zela akatsik antzeman, baina, era berean, uste du artikuluko kopuru txiki batean izan den alde txiki batek, kasu honetan artikuluko baten ezaugarri batek, ez duela ekarri behar eskaintza osoa bazterzea; izan ere, irizpide hori muturrera eramanez, lizitazio mota hori hutsik geratuko litzateke. Gaineratu duenez, hiru loteetan 240 artikuluko daude, eta produktu bakoitzerako ezaugarri kopuru handia agintzen da, 2.000 baino gehiago, hain zuzen; beraz, zentzuzkoa da enpresek akatsen bat egin ahal izatea, eta horregatik zorrotza izango litzateke eskaintza bat bazterzea produktu baten ezaugarri bat bete ez delako, BERDIN SL enpresaren kasuan gertatzen den bezala. Uste du, Auzitegiaren irizpidea hori izango balitz, tratua berdintasunaren printzipioa betetz, irizpide zorrotz berarekin aztertu beharko litzatekeela AELVASAren eskaintza. Horregatik, eskatu du Auzitegiak erabaki dezala jarduketak atzera eramatea aurkeztutako proposamen teknikoek preskripzio teknikoaren agiriaren ezarritako baldintza tekniko guztiak betetzen ote zituzten baloratu zen unera arte.

Bestalde, BERDIN SLk aitortzen du akats bat egin duela eskaintzako artikuluan, baina horrek ezin duela ekarri eskaintza bazterzea, baizik eta artikuluko hori ez baloratzea.

Bai kontratazio organoaren txostenak bai adjudikaziodunak berak onartzen dute errekurtsogileak aipatu duen ez-betetzea, eta, ikusi berri dugun bezala, administrazio klausula partikularren agiriaren eta preskripzio teknikoaren agiriaren argi eta garbi ezartzen da eskaintza beharrezko produktuen ezaugarriak ez betetzea eskaintzatik baztertzeko arrazoia dela, *“kontrakoa zehazten den kasu zehatzetan izan ezik”*.

Dena den, preskripzio teknikoaren agiriaren ez da jasotzen aurreikuspenik 3. loteko 34. produktuaren

admitirse que la alegación de la recurrente es cierta y que no se advirtió el defecto a la hora de analizar las ofertas, pero también se considera que una pequeña diferencia en un reducido número de artículos, en este caso en una característica de un artículo, no debe conllevar la exclusión de la oferta en su conjunto, ya que, llevando este criterio al extremo, nos quedaríamos con este tipo de licitaciones desiertas. Se añade que en el conjunto de los tres lotes se incluyen 240 artículos y que para cada producto se prescriben un número elevado de características, más de 2.000, por lo que es razonable que las empresas puedan cometer algún fallo, y que por ello sería riguroso excluir una oferta porque haya incumplido una característica de un producto, como ocurre en el caso de BERDIN, S.L. Entiende que, si fuera ese el criterio del Tribunal, por un principio de igualdad de trato debería analizarse con el mismo criterio riguroso la oferta de AELVASA, por lo que solicita que el Tribunal resuelva retrotraer las actuaciones al momento en el que se valoró si las propuestas técnicas que se presentaron cumplían con la totalidad de los requisitos técnicos que se establecen en el PPT.

Por su parte BERDIN, S.L. reconoce que ha cometido un error en el artículo ofertado, pero que ello no puede conllevar la exclusión de la oferta, sino simplemente la no valoración de dicho artículo.

Tanto el informe del órgano de contratación como la propia adjudicataria reconocen el incumplimiento señalado por la recurrente respecto al producto en cuestión, y, como acabamos de ver, tanto en el PCAP como en el PPT se establece con toda claridad que el incumplimiento de las características de los productos a ofertar es causa de exclusión de la oferta, *“salvo en los casos concretos en los que se especifique lo contrario”*.

Ahora bien, ninguna previsión se recoge en el PPT que permita entender que el incumplimiento de las



gutxieneko ezaugarriak ez betetzea eskaintzatik baztertzeko arrazoia ez dela ulertzea ahalbidetzen duenik. Beraz, errekurtsoaren lehen arrazoi hori onartzeak berez dakar adjudikazioa deuseztatzea.

BOSGARRENA.- Errekurtsogilearen ustez, halaber, enpresa adjudikaziodunak ez du bete 2. gutun azalean aurkeztutako dokumentazioa behar bezala orrikatuta aurkezteko eskakizun formala, adjudikatzeko irizpideak balio judizioen bidez baloratu ahal izateko.

Administrazio klausula partikularren agiriaren ezaugarrien taulako 18. atalak honako hau ezartzen du:

“Irizpide horiei buruzko informazioa bi dokumentuetan aurkeztuko da: materialen zerrenda biltzen duen Excel fitxategia (Preskripzio Teknikoen Agiriaren 2. Eranskina) eta memoria teknikoa.

Memoria tekniko hori PDF fitxategi bat izango da, ezaugarri hauek dituen:

- PDF fitxategi bakarria izango da.
- Testu bilaketak ahalbidetuko ditu.
- Orrialdekatze aurkibidea izango du.
- Papereko eta PDFko orrialdekatzeak berdin-berdinak izango dira.
- Errotazio txikiko produktuen fitxa teknikoetan produktuen taulako produktuaren kode edo IDa adieraziko da, identifikazioa erraztearren.

Baldintza horiek ez dituzten dokumentazioak ez dira balioetsiko, eta, beraz, irizpide horietan 0 puntu emango zaizkie”.

Kontratazio organoaren txostenean adierazten denez, eskatzen diren alderdi formalen helburua balorazioa erraztea eta eskaintako artikulak identifikatzea da. Izan ere, arazo hori larria izan ohi da artikulua kopuru handiko fitxa teknikoak dituzten eskaintzetan.

BERDIN SL enpresak aurkeztutako memoria

características mínimas del producto nº 34 de lote 3 no sea causa de exclusión de la oferta. Por consiguiente, la estimación de este primer motivo del recurso determina por sí sola la anulación de la adjudicación.

QUINTO.- La recurrente también considera que la empresa adjudicataria ha incumplido la exigencia formal de presentar debidamente paginada la documentación aportada en el sobre 2 para la valoración de los criterios de adjudicación mediante juicio de valor.

Establece el apartado 18 del cuadro de características del PCAP que:

“La información referente a estos criterios se presentará en dos documentos: fichero Excel de relación de materiales (Anexo 2 del PPT) y memoria técnica.

La memoria técnica será un fichero PDF de las siguientes características:

- Será un único fichero PDF.
- Permitirá búsquedas por texto.
- Contendrá un índice con paginación.
- Las paginaciones en papel y en el PDF serán idénticas.
- En las fichas técnicas de los productos de baja rotación, para poder hacer una fácil identificación, se indicará el código o ID del producto de la tabla de productos.

Las documentaciones que no cumplan estas condiciones no serán valoradas, por lo que recibirán una puntuación de 0 puntos en estos criterios”.

Se indica en el informe del órgano de contratación que el objetivo de los aspectos formales que se exigen es facilitar la valoración y poder identificar los artículos ofertados, problema que suele ser grave en las ofertas que incluyen fichas técnicas de gran cantidad de artículos.

Analizada la memoria técnica presentada por



teknikoa aztertu ondoren, ikusi da aurkibide orokor bat duela, blokeka orrikatuta. Aurkibide horrek eskaintako materialen ezaugarriak, hornidurarekin lotutako ingurumen alderdiak, eta ibilgailuen eranskinak eta fitxa teknikoak biltzen ditu, eta atal bakoitzak dagokion hasierako orria du. Fitxa tekniko bakoitzaren orri oinean orrialde zenbakia adierazi ez izanak ez du esan nahi dokumentazioak orrialde falta duenik eta hori zero puntuko balorazioaren arrazoia izan daitekeenik, errekurtsogileak eskatzen duen bezala; izan ere, eranskin bakoitzaren hasierako orriaren zenbakia adierazten da, eta horrek aukera ematen du sorta bakoitzeko produktuak argi eta garbi identifikatzeko, nahasketarik sortu gabe.

Azkenik, administrazio klausula partikularren agirian eskatzen da memoria teknikoak orrialde aurkibide bat izan dezala, eta paperezko eta PDFko orrialdeak berdin-berdinak izan daitezela. Betekizun hori betetzen da adjudikaziodunak aurkeztutako dokumentuan; dokumentu horretan, memoria teknikoak dituen PDF fitxategiko orrialdeak bat datoz orri oinean adierazitako zenbakitzearekin eta aurkeztutako aurkibidearekin.

SEIGARRENA.- Administrazio klausula partikularren agiriko ezaugarrien koadroko 18. atalak balio judizioen bidez baloratu beharreko adjudikazio irizpideen artean hornidurari lotutako honako ingurumen alderdi hauek jasotzen ditu:

- a) *“Entitateen hornidurari lotutako isuri txikiak: horretarako, kontuan hartuko dira banaketako ibilgailuen CO₂ eta beste kutsatzaile batzuen isuriak, eta hornidura bazeetatik (biltegiak) kontratazio honi atxikitako entitateetarako haiek egindako ibilbideak: % 9*
- b) *Eskaintza integratzaileen kasuan: zirkuito bakar batean bateratze osoa (sorta guztiak), partziala (bi sorta) edo bateratze eza, hornidurari lotutako isuriak murrizteko xedez: % 2”.*

BERDIN, S.L. se observa que contiene un índice general, paginado por bloques, que comprende las características de los materiales ofertados, los aspectos medioambientales asociados al suministro, así como los anexos y las fichas técnicas de vehículos, cada apartado con su página de inicio. El hecho de que en el pie de página de cada ficha técnica no se haya indicado el número de página no quiere decir que la documentación adolezca de una falta de paginación y que ello sea motivo de una valoración de cero puntos, como pretende la recurrente, ya que se indica el número de la página inicial de cada anexo, lo que permite identificar claramente los productos por cada uno de los lotes sin que dé lugar a confusión alguna.

Finalmente, el PCAP exige que la memoria técnica contenga un índice con paginación y que las paginaciones en papel y en el PDF sean idénticas; y este requisito se cumple en el documento presentado por la adjudicataria, en el que las páginas del fichero PDF que contiene la memoria técnica coinciden con la numeración indicada al pie de página y con el índice presentado.

SEXTO.- El apartado 18 del cuadro de características del PCAP contempla entre los criterios de adjudicación a valorar mediante juicio de valor los siguientes aspectos medioambientales asociados al suministro:

- a) *“Las menores emisiones asociadas al suministro a las entidades, por lo que se considerarán las emisiones de CO₂ y de otros contaminantes de los vehículos de reparto y los recorridos efectuados desde las bases de suministro (almacenes) hasta las entidades adheridas a esta contratación: 9 %*
- b) *Para las ofertas integradoras: unificación total (todos los lotes), parcial (dos lotes) o nula del reparto en un único circuito, de forma que se reduzcan las emisiones asociadas al suministro: 2 %”.*



Irizpide hori baloratzeko, enpresek Euro sailkapena eta ibilgailuen CO₂ isurien maila adierazi behar zituzten, baita haien oinarri logistikoaren edo biltegien kokapen geografikoa ere.

Para valorar este criterio las empresas debían indicar la clasificación Euro y el nivel de emisiones de CO₂ de los vehículos, así como la situación geográfica de sus bases logísticas o almacenes.

Errekurtsogileak uste du balorazio txosten teknikoak akats hauek dituela:

La recurrente considera que el informe técnico de valoración incurre en los siguientes errores:

- | | |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none">a) Ibiliko diren kilometroak neurtzeko hasierako tokia zehaztea.b) Kilometrajeen kalkulutik kanpo uztea kontratuko egoitzak.c) Banaketa-lanetarako AELVASAk eskainitako ibilgailu elektrikoaren emisio kutsatzaileak kalkulutik kanpo uztea.d) BERDIN SLren 3 furgonetekin jatorrizko 4 puntutatik irten ahal izatea zenbatestea, biei zerbitzua ematen dien furgonetak hirugarren biltegitik laugarrenera egin beharreko distantzia zenbatu gabe. | <ul style="list-style-type: none">a) Determinación del lugar inicial de la medición de los kilómetros a recorrer.b) Exclusión de sedes contractuales del cálculo de kilometrajes.c) Exclusión en el cálculo de las emisiones contaminantes del vehículo eléctrico ofrecido por AELVASA para las labores de reparto.d) Estimar que con 3 furgonetas de BERDIN, S.L. se pueda salir de 4 puntos de origen, sin computar la distancia a recorrer entre el tercer y cuarto almacén por la furgoneta que presta servicio a ambos. |
|---|---|

Balio iritzipean jarritako adjudikazio irizpideak baloratzeko 2021eko otsailaren 24ko txostenean adierazten denez, eskaintzak baloratzeko, hornidurari lotutako emisioak kontuan hartu behar dira, ibilgailuen isuri egiaztatuen eta banaketa-ibilbideen arabera, enpresen biltegietatik kontratazioari atxikitako erakundeen egoitzetara arte. Horretarako, bi enpresen proposamenak alderatzeko modu baliagarri eta objektibotzat hartu zen egoitza bakoitzetik enpresaren biltegirik hurbileneraino dagoen distantzia, nahiz eta horrela lortutako kilometroen guztizkoa ez zetorren bat benetako banaketa egiteko egingo lirakeenekin, enpresek zirkuituak egingo baitzituzten.

En el informe para la valoración de los criterios de adjudicación sometidos a juicio de valor, de fecha 24 de febrero de 2021, se indica que para la valoración de las ofertas se deben considerar las emisiones asociadas al suministro, en función de las emisiones acreditadas de los vehículos y de los recorridos de reparto desde los almacenes de las empresas hasta las sedes de las entidades adheridas a la contratación. Para ello se consideró, como forma válida y objetiva de comparar las propuestas de ambas empresas, la distancia desde cada sede hasta el almacén más próximo de la empresa, aunque el total de kilómetros así obtenido no se correspondiera con los que se harían para hacer el reparto real, puesto que las empresas harían circuitos.

Txostenaren arabera, kalkulua honako premisa hauekin egin zen:

Según el informe, el cálculo se hizo con las siguientes premisas:

- "Neurtzeko tresna: Google Maps.

- "Herramienta de medición: Google Maps.



- *Distantziak Google Mapsek helbiderik gabeko udalerria adieraztean aukeratutako puntutik eta punturaino kalkulatu dira, hurrengo puntuan adierazten diren kasuetan izan ezik.*
- *Dena den, adierazi da enpresa bien helbidea (kalea eta zenbakia), baldin eta, kontuan hartu ezean, desberdintasun nabarmenak gerta badaitezke; zehazki, Martuteneko biltegieta ("Donostia" bakarrik adierazi beharrean, helbide zehatza adierazi da).*
- *Kabia ez da kontuan hartu, ezinezkoa baita puntu bakar batean kokatzea; izan ere, egoitza nagusi bat du Miramonen, eta 14 egoitza Gipuzkoa osoan. Nolanahi ere, egoitza guztiak dagoeneko sartuta dauden udalerrietatik hurbil edo horietan kokatuta daude".*

Puntu honetan aipatu behar da Administrazioaren diskrezionalitate teknikoaren printzipioa, izaera teknikoko gaiak aintzat hartzeari dagokionez, eta horrek esan nahi du ezin direla ikuspuntu juridikotik kontrolatu, salbu eta Administrazioak lizitatzaileren artean bereizkeriaz jokatu duela edo akats nabari bat egin duela, erabilitako irizpidea ez dela justifikatu, irizpide arbitrarioa dela edo agintea desbideratu dela ulertzen den kasuetan.

Balio iritzipean jarritako adjudikazio irizpideak baloratzeko egindako txosten teknikoan, balorazioa egiteko kontuan hartu diren premisak adierazten dira. Era berean, errekurtsoa dela eta egindako txostenean erabilitako metodoaren premisa edo sinplifikazio nagusiak azaltzen eta justifikatzen dira. Horrela, jatorriari dagokionez, pentsatu zen aski egokia zela kalkulua udalerraren datuarekin soilik egitea aski, udalerritik zirelako finean eta, nolatan ere, bi enpresei berdinean eragingo zirelako; eta helmugari dagokionez, udalerria adieraztea ere nahikoa zela pentsatu zen, ezin delako ziurtatu horniduren destinoa udaletxea edo beste zerbitzu batzuk izango direnik, eta erakundeek ez dutelako jakiterik nola banatuko diren hornidurak horien artean. Era berean, azaldu da erakunde bakoitza unitatetzat hartu dela, ezin izan direlako kontuan hartu haietako bakoitzaren egoitza guztiak, erakunde guztiei haztaperen bera emanaz, eta

- *Las distancias se han calculado desde y hasta el punto elegido por Google Maps al indicar el municipio sin dirección, salvo en los casos que se indican en el punto siguiente.*
- *Sí se ha indicado la dirección (calle y número) en los casos en los que, de no considerarlo, podrían darse diferencias significativas, concretamente en los almacenes en Martutene (en lugar de indicar solo "San Sebastián" se ha indicado la dirección concreta) de ambas empresas.*
- *No se ha considerado Kabia, por la imposibilidad de ubicarla en un único punto, ya que tiene una sede central en Miramón y 14 residencias repartidas en toda Gipuzkoa. En cualquier caso, todas las residencias están ubicadas o próximas a municipios ya incluidos".*

Debe traerse a colación en este punto el principio de discrecionalidad técnica de la Administración en la apreciación de las cuestiones de carácter técnico, lo que supone que no son controlables desde el punto de vista jurídico, excepto en los casos en que se entienda que la Administración ha actuado con discriminación entre los licitadores o ha incurrido en un error patente, falta de justificación del criterio adoptado, criterio arbitrario o desviación de poder.

En el informe técnico realizado para la valoración de los criterios de adjudicación sometidos a juicio de valor se indican las premisas que se han tomado en consideración para realizar la valoración. Asimismo, en el informe emitido con ocasión del recurso se explican y justifican las premisas o simplificaciones principales del método utilizado. Así, respecto al punto de origen, se consideró que hacer el cálculo solamente con el dato del municipio era lo suficientemente aproximado por tratarse de municipios pequeños y porque, en cualquier caso, afectaría a ambas empresas por igual; y respecto al punto de destino, se consideró que también era suficiente con la indicación del municipio porque no se puede asegurar que el destino de los suministros vaya a ser la casa consistorial u otros servicios, y porque las entidades tienen múltiples sedes y tampoco se puede saber cómo se van a repartir los suministros entre todas ellas. También se explica que se ha



proposatutako ibilgailuen emisioak kalkulatzeko guztien isurien batez bestekoa egin dela, hau da, guztiak berdin haztatu direla.

Diskrezionalitate teknikoaren doktrina aplikatuz gero, lortutako kalkulu irizpidea guztiz azalduta eta justifikatuta dago, bai balorazio txosten teknikoan, bai errekurtsua dela eta egindakoan, eta erabilitako metodoa berdin aplikatu zitzaizen bi enpresei; beraz, ezin da esan arbitrariotasuna dagoenik, ezta lizitatzaileren arteko diskriminazioa dagoenik ere. Era berean, ez da ikusten erabilitako balorazio irizpidearen balio gabetasuna dakarren akats nabarmenik gertatu denik, Epaitegi honek alderdi horiei buruzko iritzia eman baitezake bakarrik.

Kontratazio organoaren txostenean ere azaltzen dira eskaintako ibilgailu elektrikoa kontuan ez hartzeko arrazoiak. Horrela, errekurtsogilearen eskaintzaren arabera, furgoneta % 100 elektriko bat erabiltzea aurreikusten da "behin-behineko larrialdietarako", eta AELVASAK, ibilbideak deskribatzean, honako hau dio: "Eguneko banaketan ibilbide batzuk ditu eta izan behar ditu bezeroei egunero arreta emateko". Beraz, txosten berean ondorioztatzen da, esparru akordioan jasotako puntu guztietan egunero entregak egiten baditu, ibilgailu horren ibilbideak, baita premiazko entregetarako ere, gutxienekoak izango direla, baita nulua ere.

Beraz, kontratazio organoak argudiatzen duen bezala, ezin da onartu errekurtsogileak ibilgailu hori eguneroko banaketarako erabiliko diren beste lau ibilgailuen berdintzat jotzeko egindako eskaera. Are gehiago, ibilgailu hori baloratzeak SPKLren 1. artikuluan ezarritako lizitatzaileren arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu berdintasunaren printzipioa urratzea suposatuko luke.

considerado cada entidad como una unidad, por la imposibilidad de tener en cuenta todas las sedes de cada una de ellas; a todas las entidades con la misma ponderación; y que al calcular las emisiones de los vehículos propuestos, se ha hecho la media de emisiones de todos ellos, es decir, se ha ponderado a todos por igual.

Aplicando la doctrina de la discrecionalidad técnica resulta que el criterio de cálculo adoptado está totalmente explicado y justificado, tanto en el informe técnico de valoración como en el realizado con ocasión del recurso, y el método utilizado se aplicó por igual a ambas empresas, por lo que no se puede hablar ni de arbitrariedad, ni de discriminación entre los licitadores, y tampoco se observa que se haya incurrido en un error patente que determine la invalidez del criterio de valoración utilizado, únicos aspectos sobre los que puede pronunciarse este Tribunal.

También se explican en el informe del órgano de contratación las razones para no considerar el vehículo eléctrico ofrecido. Así, se indica que, según la oferta de la recurrente, el empleo de la furgoneta 100 % eléctrica se prevé para las "eventuales urgencias", y que al describir las rutas AELVASA dice que "dispone y ha de disponer de unas rutas diarias de reparto para la atención diaria a sus clientes", por lo que el mismo informe concluye que, si hace entregas diarias en todos los puntos incluidos en el acuerdo marco, los recorridos de este vehículo para entregas urgentes serán mínimos, incluso nulos.

Por tanto, como aduce el órgano de contratación, no puede admitirse la pretensión de la recurrente de que este vehículo se considere en igualdad con los otros cuatro que se utilizarán para el reparto diario. Es más, valorar dicho vehículo supondría un incumplimiento del principio de no discriminación e igualdad de trato entre los licitadores, establecido en el artículo 1 LCSP.



BERDIN SL enpresak banaketarako hiru furgoneta eta lau hornidura-biltegi izatearen itxurazko inkongruentziari dagokionez, txostenean adierazi da ez zela beharrezkotzat jo horri buruzko azalpenik eskatzea; izan ere, gerta liteke egunero ez banatzea, eta, beraz, ibilgailu bakar batek Martutenetik egin ahal izango lituzke ibilbideak egun batzuetan, eta beste batzuetan Ballenerosetik, edo izan liteke, bestela, entregak bi puntu horietako batetik egitea, eta, horrek kilometraje gehigarria ekarriko luke, baina alde hori ez litzateke nabarituko esleitutako kilometroetan.

Ez administrazio klausula partikularren agiriak, ez preskripzio teknikoaren agiriak ez dute eskatzen ibilbideak biltegi bakoitzetik aldi berean egitea, eta, adjudikaziodunak adierazi bezala, ibilgailu gutxiago erabiltzeak hornidurari lotutako emisio gutxiago ere badakar.

Horren arabera, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa

En cuanto a la aparente incongruencia de que BERDIN, S.L. disponga de tres furgonetas de reparto y cuatro almacenes de suministro, se indica en el informe que se consideró que no era necesario solicitar una aclaración al respecto, ya que podría ocurrir que no haga reparto todos los días, por lo que un único vehículo podría hacer las rutas desde Martutene unos días, y otros desde Balleneros, o podría ser que haga las entregas desde uno de los dos puntos, lo que, si bien supondría un kilometraje adicional, esta diferencia no sería apreciable respecto de los kilómetros asignados.

Ni el PCAP ni el PPT exigen que las rutas se realicen simultáneamente desde cada almacén, y, como señala la adjudicataria, el hecho de utilizarse un vehículo menos supone también menos emisiones asociadas al suministro.

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

ERABAKITZEN DU

ALMACENES ELÉCTRICOS VASCONGADOS SA (AELVASA) enpresak kontratazio arloan aurkeztutako errekurso berezia baiestea, eta, ondorioz:

LEHENENGO.- Martxoaren 18ko 487/2021 Foru Agindua deuseztatzea. Horren bidez ebatzi zen amaitzea Gipuzkoako Kontratazio Zentralaren bidez material elektrikoaren hornidura ahalbidetzeko BERDIN SL enpresarekiko esparru akordioa.

BIGARREN.- Jarduketak atzera eramatea, BERDIN SLk 3. loterako aurkeztutako eskaintza alde batera utzita, prozedurak bere izapideekin jarrai dezan.

ACUERDA

Estimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por ALMACENES ELÉCTRICOS VASCONGADOS, S.A. (AELVASA) y, en consecuencia:

PRIMERO.- Anular la Orden Foral 487/2021, de 18 de marzo, por la que se resuelve concluir con la empresa BERDIN, S.L. el acuerdo marco para el suministro de material eléctrico a través de la Central de Contratación Foral de Gipuzkoa.

SEGUNDO.- Retrotraer las actuaciones para que, con exclusión de la oferta presentada por BERDIN, S.L. para el lote 3, continúe el procedimiento por sus trámites.



SPKLk 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

Donostia, 2021eko uztailaren 13a / San Sebastián, 13 de julio de 2021.